

AITZOLen mendeurrenaren agerizko bikura

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, idazkaria
 J.M., Lekuona, buruordea
 J.A. Arana Martija, diruzaina
 P. Charritton,
 J.L. Davant,
 X. Diharce,
 P. Goenaga,
 A. Irigoien,
 E. Larre,
 Tx. Peillen,
 J. San Martin,
 J.M. Satrustegi,
 L. Villasante, euskaltzainak
 X. Altzibar,
 J.M. Aranalde,
 G. Aulestia,
 J. Garmendia Larrañaga,
 A. Iñigo,
 J. Kortazar,
 J.L. Lizundia,
 L.M. Mujika,
 K. Otegi,
 P. Salaberri,
 A. Toledo,
 P. Urkizu, euskaltzain urgazleak

60. urteurrena betetzen den egunean, hain zuzen, nahi izan duela Akademiak Aitzol gogoratu, ospakizun honekin eta orain bi urte Bilbon, I. Jagon Jardunaldiak egin ziren bezalaxe, orain Tolosan eginez. Aitzoli buruzko zenbait aipamen eginaz, eskerrak bihurtzen dizkio Tolosako udalari, bere babesa eta harrera onagatik.

Ondoren, lau hitzaldi hauek ematen dira: Martin Ugalde ohorezko euskaltzainak, bere osasunagatik ezin etorria adieraziz, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak irakurtzen duelarik: "Aitzolen garaia" izeneko txostena igortzen du, urte haietako euskalgintzan zihardutenen izen eta lanak Aitzol ardatz hartuta; Xabier Diharce "Iratzeder" euskaltzain osoak: "Hiru aldiz ikusi dut Aitzol" izeneko txostena, benetan unkiagarria; Xabier Altzibar euskaltzain urgazle eta Literatura Ikerketa batzordekideak: "Aitzolen kazetaritza" izeneko ikerlan luze eta zehatza; eta Lourdes Otaegi Hernaniko Batxiler Institutuko euskara irakale katedradunak: "Aitzol euskalzalea" izeneko txoten jakingarria.

Jean Haritschelhar,
 euskaltzainburua

Endrike Knörr,
 idazkaria

Mahaipuruan eseri dira Antton Gonzalez Monfort, Tolosako alkateordea, zeren Jose Gurrutxaga alkate jauna Mexikon baita, eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Tolosako Antonio Maria Labaien kultur-etxean, 1996.eko urriaren 17an, arratsaldeko 7 eta erdietan

Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak bere ezin etorria adierazi du.

Antton Gonzalez Monfort alkateordeak bere ongi etorria ematen die bilduei, oso pozik hartzen duela Udalak Euskaltzaindia adieraziz Jose Ariztimuño "Aitzol" en mendeurrenkari, hileroko losoko bilkura eta Jagon Jardunaldiak hiri honetan egiteagatik.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak erantzuten dio poza Akademiarena berea dela, oroitaraziz Euskaltzaindiak ohitura duela, euskaltzale euskal idazle eta euskal ikerlariak beren sorterrian omentzekoa. Ohitura horri jarraiki Aitzolen mendeurrenaren karietarat, eta bere hilketaren